EUSKADIKO NEKAZARITZA ETA ELIKADURAKO PRODUKTUAK ERRETZEKO ETA DASTATZEKO ZERBITZUAK ETA ZERBITZU ENOGASTRONOMIKOAK ESKAINTZEKO AKORDIO ESPARRUA ARAUTU BEHAR DUTEN ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN ETA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

1. SARRERA

HAZI FUNDAZIOA (aurrerantzean, HAZI) Euskal Sektore Publikoko Fundazioa da, eta fundazioaren xedea eta helburua da lehiakortasuna, jasangarritasuna eta berrikuntza bultzatzea, sustatzea eta garatzea bere jarduera-eremuaren barruan, eta barnean hartzen ditu lehen sektorea (nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta basogintza), landa- eta itsasertz-ingurunea eta elikagaien industria, eta horiek balioesten eta natura- eta kultura-ondareari eusten lagunduko du.

Horri dagokionez, HAZIk haragia erretzeko zerbitzuak, Euskadiko nekazaritzako elikagaien dastatzeak eta zerbitzu enogastronomikoak kontratatu behar ditu, Fundación HAZI Fundazioak beharra duen ekitaldietarako.

2. KONTRATUAREN XEDEA

Zehazki, prozedura honen xedea da esparru-akordioa sinatzea zerbitzu hauek eskaintzeko gai den enpresarekin edo enpresa bat baino gehiagorekin:

1. Aire libreko parrilla- eta burruntzi-zerbitzua publiko orokorrarentzat ekitaldietan, Euskadiko nekazaritzako elikagaien produktuak sustatzeko.
2. Zerbitzu enogastronomikoak espazio ireki eta itxietan, askotariko xede-hartzaileengana zuzenduta (sektoreko profesionalak, publiko orokorra). Euskadiko nekazaritzako elikagaiak sustatzeaz gain, sukaldaritza- eta ardogintza-esperientziak eskainiko dituzte horiek, euskal edarien kulturaren gainean sentsibilizatzeko eta Basque Wine markaren babesean dauden edarien eta Euskadiko nekazaritzako beste elikagai batzuen ezaugarri berezien gainean sentsibilizatzeko. Zerbitzu horiek osasun-baimena duten HAZIren jabetzako unitate mugikorretan edo kontratistaren azpiegitura propioetan eskainiko dira, osasun-baimena baldin badute.

Bi zerbitzuak eskaintzeko eremu geografiko nagusia Euskadi da, baina baliteke zerbitzuren bat egin behar izatea Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo. Kasu horretan, beharrezkoa izango balitz, ostatuaren, garraioaren (HAZIk kontuan hartzen duen kilometraje-kostuaren arabera) eta mantenuaren kostuak HAZIk ordainduko lituzke, eta esleitutako prezioa zerbitzu bakoitzaren kostua izango da.

1. Aire libreko parrilla- eta burruntzi-zerbitzua publiko orokorrarentzat ekitaldietan, Euskadiko nekazaritzako elikagaien produktuak sustatzeko.

Zerbitzu honek bi lote ditu:

1. lotea: Errekiak, haragizko produktuak izango dira nagusi. Errekiak, burruntzian egindako errekiak (txahalaren, txerriaren, arkumearen kanalak, etab.) zein beste gihar batzuk eskainiko dira (behiaren haragia, arkumearena, oilaskoarena, txerriarena...), baita horien prestakinak ere (haragi-hanburgesak, oilasko-hanburgesak...). Dastatzea Euskadiko nekazaritzako elikagai batzuekin osatu ahal izango da.

2. lotea: Arrain-errekiak, eta arrain-dastatzea Euskadiko nekazaritzako elikagaien beste produktu batzuekin osatu ahal izango da.

2. Zerbitzu enogastronomikoak espazio ireki eta itxietan, askotariko xede-hartzaileengana zuzenduta (sektoreko profesionalak, publiko orokorra). Euskadiko nekazaritzako elikagaiak sustatzeaz gain, sukaldaritza- eta ardogintza-esperientziak zein beste edari batzuk eskainiko dituzte horiek, euskal edarien kulturaren gainean sentsibilizatzeko eta Basque Wine markaren babesean dauden edarien eta Euskadiko nekazaritzako beste elikagai batzuen ezaugarri berezien gainean sentsibilizatzeko. Zerbitzu horiek osasun-baimena duten HAZIren jabetzako unitate mugikorretan edo kontratistaren azpiegitura propioetan eskainiko dira, osasun-baimena baldin badute.

Zerbitzu honek lote bat du:

3. lotea: Zerbitzu enogastronomikoak espazio ireki edo itxietan, pintxo landuagoekin eta HAZIren ekitaldietarako sortutako Basque Wine sustapen-markako edariekin. Zerbitzua Fundazioaren unitate mugikorrean bertan eskaini ahal izango da, HAZIk hala nahi badu, edo, bestela, enpresa esleipendunaren azpiegitura propioetan, osasun-baimena izanez gero.

- Zerbitzu enogastronomikoa, honakoa izan behar da kontuan:

  - Gutxienez 4 pintxo desberdin, nagusiki bertan eginak.

- Basque Wine edarien zerbitzua. Gutxienez 5 edariren artean hautatzeko aukera (ardoa, txakolina, sagardoa, garagardoa eta alkoholik gabeko aukera bat gutxienez).

- Zerbitzua jasoko duten pertsonen gutxi gorabeherako kopurua: 325 pertsona

- Zerbitzua jasoko duten pertsonen gutxi gorabeherako kopurua: 100 pertsona

- Aretoa antolatuta eta garbia dagoela bermatzeko zerbitzari laguntzaileen zerbitzua (ekitaldiak hala eskatzen badu).

- Autozerbitzurako zerbitzari-zerbitzua: pintxoak eta edariak autozerbitzurako espaziora eramateaz arduratuko da (ekitaldiak hala eskatzen badu).

- Barnean sartzen da: behin erabiltzeko sukaldeko tresneria edo beharrezkoa den beste edozein elementu.

- Prezioaren barruan sartzen dira beharrezko azpiegituren alokairua, osasun-baimenarekin hala eskatuz gero, ordainsariak, lekualdatzeak, garbiketa, hondakinen bilketa, etab.

Oro har, hiru loteetarako eskatutako zerbitzuak (HAZIrekin koordinatuta eskaini beharko dira) hauek izango dira eta HAZIren protokoloen baitan eskaini beharko dira:

- HAZIk esandako bilera guztietara joatea, bere espazioan edo zerbitzua eskainiko den lekuan bertan.
- Ekitaldiaren, eskuragarri dagoen azpiegituraren eta xede-publikoaren beharretara egokitutako zerbitzuaren proposamena egitea.
- Aurretiazko gestio guztiak egitea eta beharrezko baimenak tramitatzea, azpiegiturak kontratatzailearen jabetzakoak baldin badira. Unitate mugikorraren kasuan, unitatearen baimen propioak HAZIk kudeatuko ditu. Aldiz, zerbitzu enogastronomikoarekin lotutako baimen guztiak kontratistak ordainduko ditu.
- Beharrezko material/azpiegiturak muntatzea, desmuntatzea eta garraiatzea.
- Bermatu beharko da jarduera egiten den espazioak kalitatezko irudia izatea eta Euskadiren zein HAZIren kalitatearen bereizgarrien irudiarentzat kaltegarria ez izatea.
- Jarduera garatzen den lekuan sortzen diren hondakinen bilketa, garbiketa eta kudeaketa (bilketa-puntu batera arte) beharrezkoa bada (mahaiak garbitzea, edukiontziak hustea...).
- Ekitaldi guztietarako tokiko produktuak izatea, eta Euskadiko kalitatearen bereizgarria baldin badute, horiek lehenestea beti. Ekitaldi bakoitzean, eskarien-faktura pasa beharko dio kontratatzaileak HAZIri.

- Eskariez (betiere, HAZIk ez badu erantzukizun hori bere gain hartzen), hornikuntzak jasotzeaz, garraiatzeaz eta produktuak mantentzeaz arduratzea, zerbitzua eskaintzen den unera arte.
- Zerbitzu enogastronomikoak egiteko beharrezko langileak kontratatzea. Langile horiek kontratatzailearen mende egongo dira soilik, eta kontratatzaileak izango ditu eskubide eta betebehar propioak. Hala, lan-arloan, Gizarte Segurantzaren arloan eta laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu langile horiei dagokienez.
- Adostutako zerbitzuak diseinatzea, gauzatzea eta koordinatzea.
- Kontsumitzaileari elikagaiei eta alergiak eta intolerantziak eragin ditzaketen alergenoei buruzko informazioa ematea, hala eskatuz gero.
- Ingurumenarentzat jasangarriak diren sukaldeko tresnak erabiltzea, ekitaldiak hala eskatzen badu.
- Beharrezkoa izanez gero, sustapenerako materiala jartzea Hazik ekitaldirako zehazten duen lekuan (Basque Wine kopak, kartel espezifikoak, mantalak, musu-zapiak...).
- Balorazio-txosten bat egitea ekitaldi bakoitzerako (formatuaren egokitasuna, trago-kopurua, hobetzeko arloak, parte-hartzaileen feedbacka...).

Salbuespen gisa, plegu honetan ezarritako xedapenetara egokitzen ez diren zerbitzu gehigarriak eskatuz gero momentu puntual batean beharrei erantzuteko (ostalaritzako beste zerbitzu batzuk, hala nola zerbitzarien aparteko zerbitzua, menu bat egin eta zerbitzatzea dagozkion edariekin, zerbitzua eskaintzea Euskaditik kanpo, etab.), HAZIk prestazioaren baldintzak negoziatuko ditu indibidualki enpresa esleipendunarekin, behar besteko aurrerapenarekin.

Erakunde lizitatzaile bakoitza lote batera edo hiru lotetara aurkeztu ahal izango da, baina gehienez ere lote bat esleituko zaio erakunde berberari; hortaz, erakunde lizitatzaileek loteen ordenaren lehentasuna adierazi beharko dute proposamenean.

Arau horren salbuespena izango da loteren bat hutsik geratzea. Kasu horretan, lotea puntuaziorik altuena duen enpresari esleituko zaio, nahiz eta beste lotea ere berari esleitu.

Erakunde lizitatzaileek zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren bitartekoak eta ekipamenduak gehitu beharko dituzte kontratuaren exekuzioan.

Plegu honek kontratuzko izaera du. Hortaz, esparru-akordioa egin duten aldeek sinatu beharko dute formalizatzeko unean bertan, adostasuna adierazteko.

Kontratuaren CPV kodeak honako hauek dira:

- 799560000-0 Azoka eta erakusketen zerbitzuak.
- 55322000-3 Otorduak prestatzeko zerbitzuak.

3. ESPARRU AKORDIOAREN ERREGIMEN JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

Prestakuntzari eta esleipenari dagokionez, esparru-akordioa arau hauek arautuko dute: Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza teknikoen Pleguak eta, bertan aurreikusita ez dauden kasuetan, SPKLn esparru-akordioentzat ezarritako arauek.

Efektuei eta suntsiarazpenari dagokionez, esparru-akordioa arau hauek arautuko dute: Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza teknikoen Pleguak eta, bertan aurreikusita ez dauden kasuetan, zuzenbide pribatuko arauek. Hala ere, SPKLren 319. artikuluan "Efektuak eta suntsiarazpena" atalean ezarritako arauak ere aplikagarriak izango dira esparru-akordioarentzat.

Horrez gain, SPKL eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua (aurrerantzean, 1098/2001 ED) aplikagarriak izango dira, betiere Plegu hau arau horiei berariaz lotuta ez badago.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen jurisdikzioa izango da prestakuntzari, esleipenari eta aldaketei buruzko auziak ebatziko dituena, azken horien inpugnazioaren jatorria baldin bada SPKLren 204 eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea eta aldaketa horren ondorioz esleipen berri bat egin behar izan bada.

Hala badagokio, errekurtsoa jarriko da Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Errekurtsoen Administrazio organoaren aurrean, SPKLren 44. artikuluaren eta hurrengoen arabera.
Jurisdikzio zibilak izango du akordioaren efektuen eta suntsiarazpenaren ondorioz aldeen artean sor daitezkeen kontraesanak bideratzeko eskumena, Klausula honen laugarren paragrafoan aipatutako kontratuaren aldaketen kasuan izan ezik.

4. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratatzailea HAZI da.

Esparru-akordioa egiteko Kontratazio Organo eskuduna HAZIko Zuzendaritza Nagusia da.

Esparru-akordioan oinarritutako kontratu espezifikoak egiteko Kontratazio organoa, halaber, HAZIren zuzendaria da.

Nolanahi ere, kontuan izan beharko dira HAZIn ahalordetzeei eta organoei dagokienez izaten diren balizko aldaketak eta une bakoitzean dagoen kontratatzeko konpetentziari jarraitu beharko zaio, zuzenbide pribatuko arauen arabera.

5. ESPARRU AKORDIOAREN ETA ESLEITU BEHARREKO KONTRATU ESPEZIFIKOEN BALIO ZENBATETSIA

Lote guztien esparru-akordioaren balio zenbatetsia, bi loteei dagokiena, 220.000 eurokoa da (110.000 urtean, BEZa kanpo), SPKLren 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Lote bakoitzaren balio zenbatetsi urtekotua honako hau da:

- 1. lotea: 20.000 euro (BEZik gabe).
- 2. lotea: 20.000 euro (BEZik gabe).
- 3. lotea: 70.000 euro (BEZik gabe).

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101.13 artikuluaren arabera kalkulatu da; hau da, esparru-akordioak irauten duen denbora osoan zehar lote guztien kontratuak izango duen zenbatetsitako gehieneko balioaren arabera, BEZa kenduta.

Estimazio gisa, eta ez da erabaki loteslea izango, akordio-esparruaren gutxi gorabeherako balioa kalkulatzeko mota bakoitzeko erreki-kopuru hau hartu da kontuan:

- 1. LOTEA:

- Behi-kanalen errekiak: **3** unitate urtean.
- Txerri-kanalen errekiak: **2** unitate urtean.
- Arkume-kanalen errekiak:
    - 1 eta 10 arkume artean: 0 unitate/urtean.
    - 11 arkume baino gehiago: **2** unitate urtean.
- $\leq$ 700 pintxoko errekiak: **3** unitate urtean.
- 701 < pintxo $\leq$ 1.500 pintxoko errekiak: **3** unitate urtean.
- 1.501 < pintxo $\leq$ 2.000 pintxoko errekiak: **3** unitate urtean

- 2. LOTEA:
≤ 700 pintxoko errekiak: **5** unitate urtean.
701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekiak: **10** unitate urtean.
1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekiak**: 5** unitate urtean
Arraina: **2500** Kg urtean.

-3. LOTEA
Zerbitzua Haziren unitate mugikorrean

• Zerbitzuaren gehieneko prezioa: 3.900 euro
• Pertsona bakoitzaren gehieneko prezioa:12 euro

Enpresa-esleipendunaren azpiegitura propioekin eskainitako zerbitzua, osasun-baimenarekin

• Zerbitzuaren gehieneko prezioa: 3.900 euro
• Pertsona bakoitzaren gehieneko prezioa:12 euro
• Osasun-baimena duten azpiegiturak alokatzeko gehieneko prezioa: 800 euro.

Lote baterako aurreikusitako aurrekontua betetzen ez bada, aurrekontu hori beharra dagoen beste lote bati esleitu dakioke.

Inola ere ezin da kontuan hartu aurreikuspen hori HAZIrentzat loteslea denik, orientagarria baita; beraz, estimazio hori eta esparru-akordioan agerian jarritako errealitatea bat ez etortzeak ez du ekarriko hura izenpetu dutenek erreklamaziorik egiteko eskubiderik.

Kontratuaren prezioa kontratistak eskainitako unitateko prezioei kontratua gauzatzean benetan emandako zerbitzu kopurua aplikatzean ateratako emaitza izango da. Prezio unitario horiek BEZa barne hartzen dute.

Hala izanik, erakunde lizitatzaileek kontratuaren exekuzioagatik eskainitako unitate-prezioa gehituko dute beren proposamen ekonomikoan (BEZa barne), eta ezingo da inolaz ere I. ERANSKINEAN adierazitako lizitazioaren gehieneko unitate-prezioa baino handiagoa izan.

I. ERANSKINEAN adierazitako unitate-prezioek honako hauek jasoko dituzte: kontratua gauzatzeari atxikitako edozein kontzeptu eta kontratua gauzatzeko enplegatutako langileei dagozkien gastu guztiak (hau da, soldatak eta Gizarte Segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, gaueko eta jaiegunetako orduetako lanak, baja edo gaixotasunagatiko ordezkapenak, banakako istripuen aseguruak, eta abar), baita zerga guztiak (BEZa izan ezik), aseguruak, lizentziak, garraio- eta desplazamendu-gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.

Halaber, kontratistak kontratua gauzatzeko erabili behar dituen bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipo, tresna eta gailu guztiak jasoko ditu prezioak.

HAZIri lizitazio honetan eskainitako unitate-prezioak mantendu beharko dira kontratuaren xede-produktuak dastatzen diren eta HAZIk ekonomikoki laguntzen dituen antzeko zerbitzu guztietan, nahiz eta HAZIk ez eskatu.

6. ESPARRU AKORDIOAREN ETA ESLEITU BEHARREKO KONTRATU ESPEZIFIKOEN INDARRALDIA

Esparru-akordioak bi urteko iraupena izango du eta sinatu eta hurrengo egunetik hasita egongo da indarrean.

Ekintza-eskakizun bakoitzerako, enkargu espezifiko bat egingo da.

Esparru-akordioa baino gehiago luzatzen diren kontratu espezifikoen kasuan, Plegu honetan jasota dauden esparru-akordioaren arauak eta erregimen juridikoa zein formalizatutako akordioa bera izango dira indarrean egongo direnak.

7. ESPARRU AKORDIOAREN ETA HORREN ARABERA ESLEITU BEHARREKO KONTRATU ESPEZIFIKOEN PROZEDURA

Prozedura honen barruan aukeratuko dira lehiatzen diren loteetarako Plegu honetan ezarritako kaudimen- eta egokitasun-baldintzak betetzen dituzten enpresa lizitatzaileak eta balio-judizio baten bidez kuantifikatu daitezkeen irizpideetan eskatutako gutxieneko puntuazioa lortzen dutenak.

Hainbat esleipenduneko Esparru Akordio honek kontratuaren termino guztiak finkatzen ditu; hortaz, SPKLren 221.4 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, ez da beharrezkoa lizitazio berri bat egitea aldeentzat.

Esparru-akordioa egin ondoren, ekitaldi bakoitzerako eskari espezifiko bat esleituko da, Plegu honen 18. klausulan araututako baldintza objektiboen arabera.

Era berean, HAZIk esparru-akordioa luzatzea erabakitzen badu, Plegu honen 17. klausulan araututako baldintza objektiboak jarraituko dira aplikatzen, luzapen-aldiei dagozkien kontratu espezifikoak esleitzeko.

8. PUBLIZITATEA

Esparru-akordioaren lizitazioa HAZIren kontratazioaren profilean iragarriko da.

Esparru-akordioaren esleipena HAZIren kontratazioaren profilean argitaratuko da.

Esparru-akordioaren formalizazioa HAZIren kontratazioaren profilean iragarriko da.

Esparru-akordioaren barruan egiten den kontratu espezifikoen esleipena HAZIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, SPKLren 154.4 artikuluan jasota dauden terminoetan.

Halaber, HAZIren kontratatzailearen profilean argitaratuko da SPKLren 63. artikuluan zerrendatutako gainerako informazioa.

Profil horretara webgune honen bidez sartu beharko da: www.contratacion.euskadi.eus

9. BERMEA

Ez da bermerik eskatuko.

10. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Esparru-akordio hau sinatu ahal izango dute jarduteko erabateko gaitasuna duten, kontratatzeko debekurik ez duten eta kaudimena egiaztatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek.

Enpresa lizitatzaileek gainera, esparru-akordioaren xede den prestazioa gauzatzeko eskatzen den gaitasun profesionala edo enpresariala izan beharko dute.

Pertsona juridikoei kontratua esleitu ahal izango zaie soilik esparru-akordioaren prestazioak haien estatutuetan edo sortze-arauetan ezarritako helburuen edo jarduera-arloen barruan baldin badaude.

Nolanahi ere, HAZIrekin kontratatzeko gaitasuna izango dute haien herrialdeko legediaren arabera prestazioa eskaintzeko gaituta dauden Europar Batasuneko estatu kideetako (Espainiakoak ez direnak) edo Europako Eremu Ekonomikorako akordioa sinatu zuten estatuetako enpresek, eta SPKLren 67. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Enpresa horien estatuetako legediak eskatzen badu prestazioa eskaintzeko baimen berezi bat behar dela edo erakunde jakin batekoa izan behar dela, baldintza hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko akordioetatik eratorritako Espainiako betebeharrak alde batera utzi gabe, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Eremu Ekonomikoaren

akordioa sinatu ez duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoen kasuan, txosten baten bidez justifikatu beharko dute haien jatorri-estatuak baimentzen duela SPKLren 3. artikuluan zerrendatutako sektore publikoko erakundeen kontratazioan Espainiako enpresek parte hartzea, antzeko moduan. Txosten hori herrialde horretako dagoen Espainiako Bulego Ekonomiko eta Komertzialak eta aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

Aldi baterako enpresa-batasunak ere kontratatu ahal izango ditu HAZIk eta ez da beharrezkoa izango batasun hori eskritura publikoekin formalizatzea esparru-akordioa haien alde esleitu arte. SPKLren 69. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

Enpresa lizitatzaileek ekonomia- eta finantza-kaudimena eta gaitasun tekniko edo profesionala dutela egiaztatu beharko dute:

- **Ekonomia- eta finantza-kaudimena**

✓ Kontratuaren eremuko urteko negozio-bolumena, eskuragarri dauden azken hiru ekitaldietako (urteko kontuak onartzeko betebeharra mugaeguneratuta dutenak) ekitaldirik onenari dagokiona, enpresa lizitatzailearen eratze-dataren, jardueren hasiera-dataren eta eskaintzen aurkezpen-dataren arabera, gutxienez dagokion lotearen balio zenbatetsi urtekotuaren balio bat eta erdi adinakoa izango da.

- **Kaudimen teknikoa edo profesionala**

✓ Azken HIRU urteetan 20 zerbitzu enogastronomiko egin izana gutxienez, Euskadiko nekazaritzako elikagaien produktuekin eta/edo Euskadiren ziurtatutako kalitate ofiziala duten produktuekin; hots, kontratuaren xede den lotearen antzeko zerbitzuak egin izana.
✓ Euskadiko kalitate-ziurtagiria duten nekazaritzako eta arrantzako elikagaien produktuen gaineko esperientzia eta ezagutza kontrastatuta izatea, nagusiki Eusko Label produktuen eta Basque Wine sustapen-markaren barruan dauden produktuen gainean.
✓ Laneko segurtasuneko eta osasuneko prestakuntza.

- **Giza baliabideak eta baliabide materialak.**

Gainera, erakunde lizitatzaileek, gutxienez, giza baliabide eta baliabide material hauek atxiki beharko dituzte kontratua gauzatzeko:

- **Giza baliabideak:**

✓ Dagokion lotearen arloan eta kontratuaren xede-produktuekin 5 zerbitzu egin izanaren gutxieneko esperientzia duten langileak edukitzea.

- ✓ Elikagaien higienean eta manipulazio egokian prestakuntza duten langileak izatea, baita kontsumitzaileari elikagaiei buruzko informazioa emateari dagokionez, eta alergiak eta intolerantziak eragiten dituzten substantzien adierazpenari dagokionez ere.
- ✓ Ekitaldiaren kudeaketa egokia egiteko baimen administratiboak kudeatzeari dagokionez esperientzia izatea.
- ✓ Euskararen eta gaztelaniaren ahozko erabilera menderatzen duen arduradun/kontratuaren koordinatzaile bat izatea, kalitatearen bereizgarria eta Euskadiko jatorri ofiziala duten produktuen sustapenean eta komunikazioan esperientzia duena, baita ardoaren kulturan eta Jatorri Deitura duten ardoen ezaugarri bereizgarrietan eta Euskadiko nekazaritzako eta arrantzako elikagaien produktuetan ere. HAZIk berarentzat gordetzen du ahozko proba baten bitartez baldintza hori egiaztatzeko eskubidea

- **Baliabide materialak:**

    - **Komunak lote guztientzat:**
- Gutxienez 80 kilogramo gordetzeko gaitasuna duten hozteko elementuak.
- Zerbitzua amaitu arte produktuen hotz-katea bermatuko duten garraiobideak izatea.
- Tresnak, ontziak, mahaiak eta zerbitzua behar bezala eskaintzen dela bermatzeko beharrezko beste edozein elementu izatea.
- Suaren aurkako karpak izatea.

- **Espezifikoak lote bakoitzerako:**

- Baldintza higieniko eta sanitario orokor guztiak betetzen dituzten parrillak edo burruntziak izatea eta beharrezko zerbitzuak eskaintzeko ezaugarriak izatea, aurkeztu diren lotearen arabera. (1. LOTEA ETA 2. LOTEA)
- Aldi berean 200 kg produktu erretzeko gaitasuna duten parrillak. (1. LOTEA ETA 2. LOTEA)
- Osasun-baimena duten eta parrilla edo burruntzientzako alternatiboak diren kozinatzeko azpiegiturak/baliabideak izatea (3. LOTEA).
- Espazio itxietarako burruntziak, 100 kg produkturentzat. (3. LOTEA)
- Ke-hauspoa 100 kg produkturentzat. (3. LOTEA)
- Gutxienez bi iturriko txotx mugikorrerako sistemak. (3. LOTEA)
- Frijigailuak, labeak, sorgailuak eta egosteko bestelako elementuak kanpoaldeko zerbitzuetarako. (3. LOTEA)

Konpromiso horiek funtsezko kontratu-betebeharrak izango dira SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, betebehar hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero.

Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak egiaztatzeko, enpresa lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu ahal izango dira, haiekin dituzten lotura juridikoen izaera edozein dela era, betiere egiaztatzen badute esparru-akordioa indarrean dagoen aldi osoan zehar hain zuzen ere kaudimen eta/edo bitarteko horiek dituztela, eta erakundeak kontratatzeko debekurik ez duela.

Horretarako, notario aurrean emandako idatzia aurkeztu beharko dute (**II. ERANSKINEAN** jasotako ereduaren arabera), eta bertan, enpresa lizitatzaileak kaudimena ziurtatzeko oinarritzat hartutako enpresak/enpresek honako hau adierazi beharko du/dute: enpresa lizitatzailea lehiatzen den lizitazioaren baldintza guztiak ezagutzen dituztela; aipatutako kaudimena eta/edo esleitu beharreko bitartekoak dituztela, eta hori egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute (11. klausulan aurreikusitako moduan); eta enpresa lizitatzaile horren esku, esleipendun suertatuz gero, kontratua gauzatzeko behar diren bitartekoak jartzeko borondate ezeztaezina adierazi beharko dute (Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta, eta erakunde kontratatzaileak berariaz baimendu beharko du haren ordezkapena edo aldaketa). Lizitatzaile hori esleipenduna baldin bada, idatzi hau aurkeztean, HAZIk konpromiso hori hartuko du.

Klausula honetan jasotzen diren gaitasunei, kaudimenari eta kontratatzeko debekurik ez izateari buruzko baldintzak balekoak izan beharko dira eskaintzak aurkezteko azken egunean eta esparru-akordioa borobildu arte iraun beharko dute.

11. ESPARRU AKORDIOA SINATZEKO PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkeztean enpresa lizitatzaileak baldintza guztiekin onartzen du Plegu hau, inolako salbuespenik gabe.

Plegua eta gainerako dokumentu osagarriak eskuragarri egongo dira HAZIren kontratatzailearen profilean.

Proposamenak aurkeztea:

- **Aurkezteko modua:** Eskaintzak Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikorako aplikaziotik aurkeztuko dira, bitarteko elektronikoak erabiliz, helbide honetan: https://apps.euskadi.eus/appcont/lizitazioa.

- **Aurkezteko epea:** hamasei egun natural lizitazioaren iragarkia argitaratzen den egunetik hasita.

  Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, epea hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

- **Harremanetarako eta jakinarazpenak egiteko bitartekoak**: SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera, kontratazio-prozedura honetan egingo diren komunikazioak eta jakinarazpenak agerraldi elektroniko bidez egingo dira, Eusko Jaurlaritzaren Lizitazio Elektronikoko aplikazioaren bidez. Jakinarazpen edo komunikazio bat bidaltzen den bakoitzean, enpresa lizitatzaileak jarduera horietarako emandako helbide elektronikoan jasoko du abisua.

Artxibo elektronikoak izan arren, **1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala** izena jarriko zaie.

Gutun-azal bakoitzak jarraian ageri den dokumentazioa jaso beharko du:

1. GUTUN-AZALA "AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA".

Gutun-azalak jarraian ageri diren dokumentuak izan beharko ditu. Bi loteetarako eskaintzak aurkezten dituzten enpresa lizitatzaileek 1. gutun-azal bakarra eskaini ahal izango dute, dokumentazio honekin:

a) Esparru-akordioa Plegu honen III. eranskinean atxikita dagoen ereduaren arabera sinatzeko eskaera-dokumentua.

Eskaera horretan adieraziko dira esparru-akordioan parte hartzeko eskatu den lotea edo loteak.

b) **Enpresa lizitatzailearen jarduteko gaitasuna, eta hala badagokio, haren ordezkaritza egiaztatzen duten agiriak** (*Proposamena behin-behineko batasunean aurkeztu nahi duten enpresariek formulatu badute, dokumentazio hori batasuna osatuko duten enpresa guztiei buruzkoa izan beharko da*):

- Pertsona juridikoak diren enpresen jarduteko gaitasuna honako hauen bidez egiaztatuko da: eratze-eskritura edo -dokumentua, estatutuak edo sortze-egintza, jarduera arautzen duten arauak jasotzen dituena, eta, hala badagokio, dagokion Erregistro Publikoan behar bezala inskribatua, pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasunekoak ez diren estatu kideetako enpresa ez espainiarren jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, dagokion Erregistroan inskribatuta egon beharko dute, ezarrita dauden Estatuko legediaren arabera, edo zinpeko aitorpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko da, aplikagarriak diren xedapen komunitarioen arabera.

- Atzerriko gainerako enpresen jarduteko gaitasuna egiaztatzeko, dagokion estatuko Espainiako Misio Diplomatiko iraunkorraren edo enpresari dagokion lurralde-eremuko Kontsularen Bulegoaren txostena beharko da. Txosten horren bidez justifikatu beharko da atzerriko enpresaren jatorri-estatuak onartzen duela Espainiako enpresek Administrazioarekiko kontratuetan eta SPKLren 3. artikuluan zerrendatuta daudenen antzeko sektore publikoko erakunde, organo edo elkarteekiko kontratuetan parte hartzea.

- Pertsona fisiko diren enpresarien jarduteko gaitasuna Nortasun Agiri Nazionalaren edo bere herrialdeko agiri baliokidearen bitartez egiaztatuko da.

- Beste baten izenean agertu edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztuko dute, baita horretarako ahalorde nahikoa ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordea Merkataritza Erregistroan inskribatuta agertu beharko da, Merkataritza Erregistroaren Erregelamenduaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hala eskatzen denean, edo, hala badagokio, nortasun juridiko motaren arabera dagokion Erregistro Publikoan.

- Behin-behineko batasunean doazen enpresek haien izenak, batasuna eratzeko baldintzak eta bakoitzaren parte-hartzea adierazi beharko dute, baita esleipendunak izanez gero behin-behineko batasun hori formalki eratzeko konpromisoa ere. Behin-behineko batasunean aurkeztu nahi duten enpresariek betebehar solidarioa izango dute eta batasunarentzako ordezkari edo apoderatu ba izendatu beharko dute, eta eskubideak gauzatzeko eta esparru-akordiotik eratortzen diren betebeharrak betetzeko ahala izan beharko du, kontratua iraungi arte. Zenbateko esanguratsua duten kobrantza eta ordainketetarako eman ditzaketen mankomunatutako ahalordeak egoteak ez du eraginik izango.

Dokumentazio hori guztia jatorrizkoan edo kopia konpultsatuan edo autentifikatuan aurkeztuko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Estatuko Lizitatzaileen eta Sailkatutako Enpresen Erregistro Ofizialean izena emanda dauden enpreas lizitatzaileek Erregistroaren abokatu arduradunak igorritako inskripzio-ziurtagiriaren kopia aurkeztu dezakete, (c) atalean eskatzen den dokumentazioaren ordez. Inskripzioaren ziurtagiriarekin batera enpresa lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, dokumentuan ageri diren baldintzak ez direla aldatu adierazteko.

c) Enpresa lizitatzaileak SPKLren 71. artikuluan adierazitako kontratatzeko debekurik ez duela dioen lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria.

Agintari eskudunak ezin badu agiri hori eman, horren ordez erantzukizunpeko adierazpen bat egin ahal izango da, administrazioko agintari, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean.

d) Plegu honen 10. klausulan adierazitako kaudimen ekonomiko eta finantzarioa eta kaudimen teknikoa edo profesionala badutela egiaztatzen duten dokumentuak.

- **Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa** dagokion lotearen arloko negozioen urteko bolumenari buruzko adierazpen baten bitartez adieraziko da, azken urteetan bolumenik handiena izan duen ekitaldia kontuan hartuta.
- Eskatutako **kaudimen tekniko edo profesionala** azken hiru urteetan egindako zerbitzuen edo lanen zerrenda baten bidez egiaztatuko da, eta horien zenbatekoa, data eta hartzailea (publikoa edo pribatua) adierazi beharko da. Egindako zerbitzuak edo lanak egiaztatzeko, organo eskudunak egindako edo onetsitako ziurtagiriak aurkeztuko dira hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean edo, hartzailea subjektu pribatua bada, hark egindako ziurtagiri bat edo, bestela, enpresa lizitatzailearen deklarazio bat, lizitatzaileak berak dauzkan eta prestazioa egin dela egiaztatzen duten dokumentuekin batera.

Eskaintzak bi loteetan eta 1. gutun-azal bakarrean aurkezten dituzten enpresa lizitatzaileen kasuan, d) letra horretan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko da lote bakoitzarentzat.

e) 10. klausulan eskatzen diren giza baliabideak eta baliabide materialak kontratuaren exekuzioari atxikitzeko konpromisoa izatea, Plegu honen IV. ERANSKINEAN ageri den ereduaren arabera.

f) Hala badagokio, eskatutako kaudimena egiaztatzeko, enpresa lizitatzailea beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarrituko dela adierazten duen notario-akta, **II. eranskinean** ageri den ereduaren arabera.

g) HAZItik egiten diren jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bitartekoa esleitzeko dokumentua, Plegu honen **IV. eranskinean** jasota dagoen ereduaren arabera.

h) Atzerriko enpresek berariazko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, eta bertan adieraziko dute Espainiako edozein epaitegi eta auzitegiren jurisdikzioaren menpe geratzen direla esparru-akordiotik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen jazoera guztietarako, eta, hala badagokio, uko egiten diola lizitatzaileari toka dakiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari, Plegu honetako **IV. eranskinean** atxikitako ereduaren arabera.

Atzerriko enpresek dokumentazioa ofizialki euskara edo, hala badagokio, gaztelaniara itzulita aurkeztu beharko dute.

HAZIk beretzat gordetzen du egokiak iruditzen zaizkion egiaztapen-lanak egiteko edo enpresa lizitatzaileek emandako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko beharrezkoa ikusten duen dokumentazio gehigarri guztia eskatzeko eskubidea.

2. GUTUN-AZALA "BALIO JUDIZIO BATEN ARABERA KUANTIFIKATU BEHAR DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA"

Enpresa lizitatzaileek balio-judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute gutun-azal independente batean, eskatzen duten lote bakoitzarentzat.

- **1. eta 2. lotea:**
  - Errekien eta dastatzeen ZERBITZUAK EGITEKO PROPOSAMEN EDO MEMORIA xehea. Erakunde lizitatzaileek zerbitzu gastronomikoaren proposamen baten deskribapena sartu beharko dute **1. gutun-azalean**, eta gehienez ere 2.000 pintxo izango ditu proposamen horrek. Zehaztu gabeko aire libreko espazio batean egingo litzateke.
  - Zerbitzua nola egingo den, zereginen deskribapena, bere gain hartu dezakeen gaitasuna eta dimentsioa, Euskadiko kalitate-bereizgarria duten produktuen gaineko ezagutza eta abar gehitu beharko da.
  - HAZIren behar eta ezaugarrietara egokitu daitezkeen baliabide materialen eta azpiegituren zerrenda.
- **3. lotea:**
  - Eskatutako ZERBITZUAK EGITEKO PROPOSAMEN EDO MEMORIA xehea. Erakunde lizitatzaileek dokumentu bat gehitu beharko dute **1. gutun-azalean** zerbitzu enogastronomiko baten proposamenaren deskribapenarekin. Proposamen horrek 4 pintxo izan

beharko ditu gutxienez eta 5 edariren artean aukeratzeko aukera (ardoa, txakolina, sagardoa, garagardoa eta alkoholik gabeko aukera bat gutxienez), gehienez ere 325 pertsonarentzat. Azoka profesional baterako eskaintza izango da.

- Alderdi hauek gehitu beharko dira: zerbitzua nola eskainiko den, beharrezko baimenen kudeaketa, zerbitzua ondo exekutatzeko eskuragarri dauden materialak, eta lehengaien eta edarien zerrenda, dagokien hornitzaileekin.
- HAZIren ekitaldien behar eta ezaugarrietara egokitu daitezkeen materialen eta azpiegituren zerrenda, osasun-baimenarekin (zerbitzua enpresa esleipendunaren azpiegitura propioekin eskainiko baldin bada).

Kontratazio publikoan klausula sozial jakin batzuk sartzeari buruzko apirilaren 7ko 3/2016 Legean xedatutakoa betetze aldera, ohartarazten da kontratuak indarrean dauden eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloan aplikatzekoak diren legezko, erregelamenduzko eta hitzarmenezko xedapenak bete behar dituela.

Testuinguru horretan, 1. gutun-azalean aurreikusitako dokumentazioan enpresa lizitatzaileek **adieraziko dute zein hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera egiten duten langileei, esleipendun izanez gero.** Enpresa esleipendunak langileen soldaten baldintzak betetzeko betebeharra izango du uneoro, aplikagarria den sektoreko hitzarmen kolektiboaren arabera.

3. GUTUN-AZALA "FORMULAK ERABILIZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA".

Enpresa lizitatzaileek formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko proposamena aurkeztu beharko dute gutun-azal independente bakoitzean lizitazioa aurkezten duten lote bakoitzarentzat, Plegu honetako **V. eranskinean** ageri den ereduari egokituta.

Zehazki, formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko proposamenak kontzeptu hauek izan beharko ditu:

1. **Erreki edo dastatze bakoitzeko unitate-prezioa**

1. LOTEA

• Behi-kanalen errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
• Behi-kanalen errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

• Txerri-kanalen errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
Txerri-kanalen errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

• Arkume-kanalen errekietarako prezioa (1-10 arkume)……euro
(prezioa BEZik gabe).
Arkume-kanalen errekietarako prezioa (1-10 arkume)……euro
(prezioa BEZarekin).

• Arkume-kanalen errekietarako prezioa (11 arkumetik aurrera)……euro arkume gehigarri bakoitzeko (prezioa BEZik gabe).

Arkume-kanalen errekietarako prezioa (11 arkumetik aurrera)……euro arkume gehigarri bakoitzeko (prezioa BEZarekin).

• ≤ 700 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
≤ 700 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

• 701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

• 1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

2. LOTEA

• ≤ 700 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
≤ 700 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

• 701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

• 1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekietarako prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

• Produktua prestatzeko prezioa……euro (prezioa BEZik gabe).
Produktua prestatzeko prezioa……euro (prezioa BEZarekin).

3. LOTEA

Zerbitzua Haziren unitate mugikorrean

Zerbitzu enogastronomikoa, honakoa izan behar da kontuan:

- Gutxienez 4 pintxo desberdin
- Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura.
- Zerbitzua jasoko duten pertsonen gutxi gorabeherako kopurua: 325 pertsona

Barnean sartzen da: ordainsariak, behin erabiltzeko sukaldeko tresneria edo beharrezkoa den beste edozein elementuren kostua.

• Zerbitzuaren gehieneko prezioa…….. euro (prezioa BEZik gabe)

Zerbitzuaren gehieneko prezioa……euro (prezioa BEZarekin)

• Gehieneko prezioa pertsona bakoitzeko …….. euro (prezioa BEZik gabe)

Gehieneko prezioa pertsona bakoitzeko …….. euro (prezioa BEZarekin)

Enpresa-esleipendunaren azpiegitura propioekin eskainitako zerbitzua, osasun-baimenarekin

Zerbitzu enogastronomikoa, honakoa izan behar da kontuan:

- Gutxienez 4 pintxo desberdin
- Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura.
- Zerbitzua jasoko duten pertsonen gutxi gorabeherako kopurua: 325 pertsona

Barnean sartzen da: osasun-baimena duten azpiegituren alokairua, ordainsariak, lekualdatzeak, behin erabiltzeko sukaldeko tresnen, kopen edo beharrezkoa den beste edozein elementuren kostua.

• Zerbitzuaren gehieneko prezioa…….. euro (prezioa BEZik gabe)

Zerbitzuaren gehieneko prezioa……euro (prezioa BEZarekin)

• Gehieneko prezioa pertsona bakoitzeko …….. euro (prezioa BEZik gabe)

Gehieneko prezioa pertsona bakoitzeko …….. euro (prezioa BEZarekin)

• Osasun-baimena duten azpiegiturak alokatzeko gehieneko prezioa……..euro (prezioa BEZik gabe)

Osasun-baimena duten azpiegiturak alokatzeko gehieneko prezioa…… euro (prezioa BEZarekin)

12. ESLEITZEKO IRIZPIDEAK

Esleipen-irizpideak, dagokien haztapenarekin, honako hauek izango dira Lote guztietarako:

1. Balio-judizio baten araberako kuantifikazioa duten irizpideak (2. gutun-azala): 55 puntu gehienez.

	LOTE BAKOITZERAKO BALIO JUDIZIOAREN ARABERAKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA (2. gutun-azala)	GEHIENEKO PUNTUAZIOA
1	-**Memoria** Proposamenen egokitasuna eta koherentzia baloratuko da.	**30**
	a) HAZIren helburuetara eta xede-hartzaileetara egokitzea b) Zerbitzuaren deskribapena eta xehetasuna	**15** **15**
2	**-1., 2. eta 3. LOTEETARAKO** baliabide materialen eta azpiegituren zerrenda. -HAZIren ekitaldien behar eta ezaugarrietara egokitu daitezkeen eta osasun-baimena duten baliabide materialen eta azpiegituren zerrenda.	**10**
	a) Proposatutako baliabide materialen ezaugarrien egokitasuna baloratuko da. b) Proposatutako baliabide materialen berrikuntza baloratuko da.	7 3
3	**-Genero-berdintasunaren irizpidea:** zerbitzuko langileen artean gehiengoa emakumezkoak baldin badira.	**5**

Gehieneko 55 puntuetatik, gutxienez, **30** puntu eskuratu beharko dituzte eskaintzek prozeduran aurrera jarraitu ahal izateko.

2. Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideak (3. gutun-azala): gehienez 45 puntu.

2.1 Proposamen ekonomikoek **30 puntu** izango dituzte gehienez ere.

30 puntuak honela esleituko dira lote bakoitzerako:

- **1. LOTEA eta 2. LOTEA:**

ESKAINTZA EKONOMIKOA	**GEHIENEKO PUNTUAZIOA**
1. LOTEA	
Behi-kanalen errekietarako prezioa	5 puntu
Txerri-kanalen errekietarako prezioa	5 puntu
Arkume-kanalen errekietarako prezioa (1-10 arkume)	2 puntu
Arkume-kanalen errekietarako arkume gehigarri bakoitzaren prezioa (11 arkumetik aurrera)	4 puntu
≤ 700 pintxoko errekietarako prezioa	4 puntu
700 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekietarako prezioa	5 puntu
1.500 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekietarako prezioa	5 puntu
GUZTIRA	**30 puntu**
LOTE 2	
≤ 700 pintxoko errekietarako prezioa	6 puntu
700 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekietarako prezioa	10 puntu
1.500 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekietarako prezioa	10 puntu
Produktua prestatzea 1€/kg	4 puntu
GUZTIRA	**30 puntu**

- **LOTE 3**

3. LOTEA (HAZIren unitate mugikorrean)	
✓ Gutxienez 4 pintxo desberdin ✓ Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura. ✓ Zerbitzua jasoko duten pertsonen gutxi gorabeherako kopurua: 325 pertsona	30 puntu
GUZTIRA	**30 puntu**
3. LOTEA (kontratatzailearen azpiegitura propioekin)	
✓ Gutxienez 4 pintxo desberdin ✓ Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura. ✓ Zerbitzua jasoko duten pertsonen gutxi gorabeherako kopurua: 325 pertsona	20 puntu
+ osasun-baimena duten azpiegituren alokairua	10 puntu
GUZTIRA	**30 puntu**

Esparru-akordioan aukeratua izateko, enpresek 60 puntu lortu behar dituzte gutxienez.

Puntuak esleitzeko, formula hau erabiliko da, eta unitate-prezio bakoitzari aplikatuko zaio:

$$P = Pto \times \frac{\text{Gutxieneko eskaintza}}{\text{Enpresa lizitatzailearen eskaintza}}$$

Non:

P= Baloratzen den enpresa lizitatzaileak unitate-prezio horretan lortutako puntuazioa.
Pto= Dagokion unitate-prezioaren gehieneko puntuazioa.
Gutxieneko eskaintza = eskainitako unitate-prezioaren zenbateko baxuena.

Enpresa lizitatzailearen eskaintza = baloratzen den eskaintzaren unitate-prezioaren zenbatekoa.

Plegu honetako 6. Klausulan adierazitako lizitazioaren gehieneko unitate-prezioa hobetzen ez duten eskainitako unitate-prezioek zero (0) puntu lortuko dituzte unitate-prezio horri dagokion atalean.

Gehieneko 30 puntuetatik, gutxienez, 20 puntu eskuratu beharko dituzte eskaintzek prozeduran aurrera jarraitu ahal izateko.

2.2 Proposatutako lantalde teknikoko pertsonen esperientziaren baturarekin 15 puntu gehiago lortu ahal izango dira:

- ✓ Azken 3 urtetan 21 eta 40 zerbitzu artean: 5 puntu
- ✓ Azken 3 urtetan 40 zerbitzu baino gehiago: 15 puntu

13. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea kide hauek osatuko dute:

- Komunikazio, Publizitate eta Ekitaldi Saileko arduraduna eta Sektorearen Sustapen Saileko arduraduna.

- Ekitaldiak kudeatzen dituen teknikaria.

- Aholkularitza juridikoko arduraduna; idazkari-lanetan jardungo da

- Administrazio arloko arduraduna.

14. PROPOSAMENAK ZABALTZEA

Proposamenak aurkezteko epea amaitutakoan, Ebaluazio Batzordeak denboraren barruan eta behar den moduan aurkeztutako 1. gutun-azalean ageri den dokumentazioa kalifikatuko du (“Aurretiazko baldintzak betetzeari buruzko dokumentazioa”). Aurkeztutako dokumentuetan zuzendu daitezkeen akatsak ikusiz gero, hiru egun naturaleko epea emango du enpresa lizitatzaileak zuzendu ditzan.

Jarraian, 2. gutun-azala zabalduko da (“Balio-judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioa”), Pleguaren 12. klausulan ezarritako esleipen-irizpideen arabera baloratzeko.

Balio-judizio baten arabera kuantifikatu behar diren irizpideei buruzko dokumentazioaren balorazioaren helburua izango da enpresa lizitatzaileek aplikatu beharreko lan-metodologia eta giza baliabideak esparru-akordioa sinatzeko nahikoak

diren ala ez zehaztea. Ebaluazio Batzordeak erabakitzen badu enpresa lizitatzaileak/lizitatzaileek esparru-akordioa sinatzeko ez d(ir)ela gai, prozeduratik kanpo geratuko d(ir)a.

Ondoren, 3. gutun-azala zabalduko da ("Formulak erabiliz ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa").

Neurriz kanpokotzat edo anormaltzat jo daitekeen proposamen bat identifikatzen denean, proposamena aurkeztu duten lizitatzaileei entzun beharko zaie, eskaintzaren balorazioa justifika dezaten eta eskaintzaren baldintzak zehaztu ditzaten.

Kasu horretan, desproportzionatutzat edo ezohikotzat hartuko da **I. eranskinean** adierazitako lizitazioaren gehieneko unitate-prezioa baino ehuneko 20 unitate edo txikiagoa den unitate-prezioa.

Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa ondoren baloratuko da, kontratu espezifikoak esleitzeko 17. klausulan araututako prozeduraren esparruan.

Ondoren, Ebaluazio Batzordeak aurkeztutako proposamenak kalifikatzeko txostena igorriko dio Kontratazio Organoari, eta onartu eta **goitik beherako ordenan sailkatu** beharrekoak proposatuko dizkio.

Egindako guztia dagokion Aktan bilduko da, eta ebaluazioaren emaitza eta bere jazoerak islatuko dira bertan.

Ebaluazio Batzordearen esleipen-proposamenak ez du eskubiderik sortzen HAZIren aurrean hautatutako enpresen alde.

Ebaluazio Batzordearen proposamena ikusita, Kontratazio organoak adostuko du Plegu honetan eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eta Klausula honetan adierazitakoaren arabera baztertuak izan ez diren enpresa lizitatzaileen aldeko esparru-akordioa esleitzea.

Esleipena Kontratazio organoak adostuko du, arrazoitutako ebazpenaren bidez, eta enpresa lizitatzaileei jakinaraziko zaie, Plegu honetako **IV. eranskinean** jasota dagoen ereduan adierazitako bitartekoaren bidez, eta, aldi berean, kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

15. ESPARRU AKORDIOA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA.

Esparru-akordioa formalizatutakoan burutuko da.

HAZIk hala eskatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartean aurkezten diren enpresa esleipendunek aldi baterako enpresa batasunaren legezko eratzearen egiaztagiria aurkeztu beharko ute esparru-akordioa sinatu aurretik, eta aldi baterako batasun horren ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko dute. Pertsona horrek esparru-akordioaren betebeharrak betetzeko eta eskubideak gauzatzeko ahala izan beharko du, akordioa iraungi arte.

Esparru-akordioa dokumentu pribatuan formalizatuko da eta zehatz-mehatz egokituko da lizitazioaren baldintzetara. Esparru-akordioa formalizatzeko dokumentuan ezingo dira inolaz ere gehitu kontratazioaren terminoak aldatuko dituzten klausulak.

Hala ere, enpresa esleipendunak esparru-akordioa eskritura publiko bihurtzea eska dezake, eta bere kargu geratuko dira horri dagozkion gastuak.

Lote bakoitzeko enpresa esleipendunekin esparru-akordioa ezingo da enpresa lizitatzaileei eta hautagaiei esleipenaren jakinarazpena igorri eta hurrengo hamabost egunak igaro arte formalizatu.

Esparru-akordioaren formalizazioa kontratatzailearen profilean argitaratuko da, dagokion esparru-akordioarekin batera, esparru-akordioa burutu eta hurrengo hamabost egun naturaletan.

16. ESPARRU AKORDIOA ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratua aldatu ahal izango du SPKLren 205. eta 222.1. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

Esparru-akordioaren aldaketak SPKLren 153. artikuluan xedatutakoaren arabera formalizatu beharko dira.

Esparru-akordioaren aldaketa 205. artikuluko 2. atalaren a) eta b) hizkietan aurreikusitako kasu batengatik ematen bada, HAZIk aldaketaren iragarkia argitaratuko du kontratatzailearen profilean.

17. ESPARRU AKORDIOA SUNTSIARAZTEA

SPKLren 211. artikuluko b), f), g) eta i) hizkietan aurreikusitakoa (berariaz aplikatzekoak dira) eta, oro har, kontratuzko betebeharrak ez betetzea izango dira esparru-akordioa suntsiarazteko arrazoiak, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Halaber, esparru-akordioa suntsiarazteko arrazoia izango da esparru-akordioan oinarritutako esleitutako kontratu espezifikoen balio zenbatetsi osoa esparru-akordioan zenbatetsitako baliora iristea, hau da, 400.000 eurora (BEZik gabe).

Enpresa bati egotz dakizkiokeen arrazoiengatik esparru-akordioa suntsiarazteak pertsona horrengan soilik izango ditu efektuak, eta HAZIrekin esparru-akordioa sinatu duten gainerako enpresen kasuan indarrean jarraituko du.

18. ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATU ESPEZIFIKOAK ESLEITZEA ETA FORMALIZATZEA

Esparru-akordioa indarrean dagoen bitartean eta aldez aurretik lizitazioaren deialdirik egin ez bada, SPKLren 221.4. a) artikuluan aurreikusitakoaren arabera, HAZIk lote bakoitzeko kontratu espezifikoak Klausula honetan ezarritakoaren arabera esleituko ditu, eta ezingo du adierazi lizitazioren bat hutsik geratu dela baldin eta pleguan ezarritako irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenik badago.

Ekitaldi jakin baterako behar zehatzen bat baldin badago, HAZIk posta elektronikoaren bidez galdetuko dio Esparru Akordioaren dagokion lotean eskaintzarik onena aurkeztu duen eta ondorioz lehenengo geratu den enpresa lizitatzaileari, ea kontratu espezifiko hori exekutatu dezakeen.

Mezu elektroniko horretan ekitaldia, kokapena, produktu-mota, bolumena eta kopuruak eta erreki jakin horren behar espezifikoak zehaztuko ditu.

Lehengo lekuan geratu den enpresa lizitatzaileak zerbitzua eskaini baldin badezake HAZIk adierazitako epean, enpresa sinatzaile horri esleituko dio HAZIk zerbitzua, baina aldez aurretik, lantaldea eta ekitaldira bideratutako baliabide materialak aurkeztu beharko ditu enpresak, baita esleitutako langileen gizarte-segurantzako betebeharren eta laneko arriskuen egiaztagiria ere. Lehen lekuan geratu den enpresa sinatzaileak ezin badu eskatutako errekia egin HAZIk adierazitako epean, bigarren puntuaziorik altuena lortu duen enpresari kontsultatuko dio HAZIk posta elektroniko bidez.

Enpresa sinatzaile horrek zerbitzua eskaini baldin badezake adierazitako epean, HAZIk dagokion kontratu espezifikoa esleituko dio. Ezin badu erreki hori egin adierazitako epean, HAZIk hirugarren puntuaziorik altuena lortu duen enpresari galdetuko dio eta horrela hurrengo guztiekin, dagokion kontratu espezifikoa esleitu arte.

SPKLren 36.3 eta 153.1 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, kontratu espezifikoak esleipenarekin batera burutuko dira, eta ez da kontratuzko dokumenturik sinatu beharko.

Kontratu espezifikoaren esleipendunak ez diren enpresei jakinarazi ordez, HAZIren kontratatzailearen profilean argitaratu daiteke.

19. PREZIOAREN ZEHAZTAPENA ETA ORDAINKETA

Enpresa kontratistak eskubidea izango du gauzatutako ekintzen prezioa ordaintzeko.

Enpresa kontratistari ordainduko zaio eskainitako unitate-prezioari behar bezala egin diren ekintzen kopurua aplikatuz gero ateratzen den prezioa.

Enpresa kontratistak faktura xehea igorri beharko du kontratu espezifiko bakoitzean eskatutako ekintza bakoitza egin eta hurrengo hamabost egun naturaleko epean, zer **loteri dagokion adierazita**.

Prezioa kontratu espezifikoan eskatutako ekintza egin eta hurrengo 30 eguneko epean ordainduko du HAZIk, betiere, faktura aurreko paragrafoan adierazitako epean igorri bada eta HAZIren oniritzia baldin badu.

20. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Ez dagokio prezioa berrikustea.

21. KONTRATU ESPEZIFIKOEN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak esparru-akordioaren arabera esleitutako kontratu espezifikoen arduraduna esleituko du (esparru-akordioaren arduraduna ere izango da), eta haren zeregina izango da esparru-akordioa exekutatzen dela egiaztatzea, erabakiak hartzea eta adostutako prestazioa behar bezala egiten dela egiaztatzeko beharrezko jarraibideak ematea, HAZIk esleitzen dizkion ahalmenen arloaren barruan.

Arduraduna HAZIrekin lotura duen edo loturarik ez duen pertsona fisiko edo juridikoa izan daiteke.

Kontratuaren arduradunak ematen dituen jarraibideak derrigorrez bete beharko dituzte enpresa kontratistak eta esparru-akordioaren sinatzaileek.

22. KONTRATU ESPEZIFIKOEN EXEKUZIOA ETA BETEBEHARRAK

Kontratuak honako baldintza hauen arabera gauzatuko dira:

- Kontratuak enpresa esleipendunaren arrisku eta zoripean exekutatuko dira.

- Kontratuak Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarritako terminoen eta baldintzen arabera, enpresa esleipendunak aurkeztutako eskaintzaren eta HAZIk edo, hala badagokio, kontratuen arduradunak emandako jarraibideen arabera exekutatuko dira.

- Eskaintzan konprometituta dauden giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzea kontratuaren exekuzioari, eta, zehazki, prestakuntza eskaintzeko kualifikazioa duten pertsonen taldea; instalazioak eta baliabide materialak; baliabide informatiko eta telematikoak; eta zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezko administrazioko langileak.

- Kontratuak egiaztatzeko, une bakoitzean indarrean dagoen eta kontratatutako zerbitzuetan aplikagarria den sektoreko araudia erreparatu eta beteko da.

- Kontratuek indarrean dauden eta lanaren, Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasunaren eta osasunaren legezko xedapenak, arauak eta konbentzioak bete beharko dituzte.

- HAZIk edozein unetan edo edozein bitartekoren bidez kontrolatu, egiaztatu eta berrikusi dezake kontratuzko betebeharrak betetzen direla eta kontratuzko prestazioak ondo exekutatzen direla.

  Horretarako, HAZIk kontratuaren betebeharrak zuzen betetzen direla eta zerbitzuen garapenean kalitatearen maila egokia dela egiaztatzeko edo auditoria egiteko beharrezkoak iruditzen zaizkion laguntzak jaso ditzake kanpotik.

  Enpresa esleipendunak HAZIk eskatzen dizkion zerbitzuekin lotutako datuak eta beharrezko laguntza guztia eman beharko ditu, inolako kostu gehigarririk gabe, eta, are, kontratatutako zerbitzuekin lotutako laneko, administraziorako edo beste mota bateko dokumentaziorako sarbidea ahalbidetu beharko du.

  Enpresa esleipendunak ezingo ditu HAZIk eta LANBIDEk egindako ikuskapen- eta kontrol-lanak oztopatu.

  Enpresa kontratistak izango dira haien kontratuak gauzatzeagatik egindako operazioen ondorioz HAZIri zein hirugarrengoei eragindako zuzeneko eta zeharkako kalte-galera guztien erantzuleak.

  Eragindako kalte-galerak HAZIk emandako berehalako eta zuzeneko aginduaren ondorio badira, HAZI izango da erantzulea, legeetan ezarritako mugen barruan.

- Zerbitzua behar bezala eskaintzeko beharrezkoak diren lizentziak eta baimenak enpresa kontratatzaileak lortu beharko ditu. Era berean, enpresak akordioa betetzeko egin beharreko gastu guztiak eta tasa eta tributu mota guztiak, jarduerarengatik sor daitekeen zerga eta indarrean dagoen bitartean kontratu espezifikoa exekutatzetik eratorri beharreko beste edozein ordaindu beharko ditu.

- Enpresa kontratistak datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionean pertsona fisikoak babesteko 2016ko apirilaren 27ko Europar Parlamentuko eta Batzordeko 2016/679 (EB) Araudian (aurrerantzean, DBEO) aurreikusitakotik eratortzen diren betebeharrak eta kontratua indarrean dagoen bitartean aplikagarria den datuen babeserako beste edozein arau bete beharko du pertsona fisiko kontratatistak, tratamendu horren erantzule gisa bere jardueren esparruan, eta bere kabuz eta bere erabakipean egiten duen datu pertsonalen tratamendurako.

  Betebehar hori ezartzerakoan, ez da kaltetutako Plegu honen 23. klausulan espezifikoki ezarritakoa, hala badagokio, HAZIk egin beharreko datu pertsonalen balizko tratamenduari buruz.

- Kontratua exekutatzerakoan, enpresak emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legearen 2.3 artikuluan xedatutakoa beteko du, eta bereziki bermatuko du langileen tratu- eta aukera-berdintasunerako printzipioak errespetatzen direla, eta hizkera eta irudi ez sexistak erabiltzen direla, sexuaren araberako estereotipoak ekiditeko. Halaber, kontratatutako produktuari buruzko informazioa sexuaren arabera bereiziko da eta genero-ikuspegia izango du.

- Kontratu espezifikoak exekutatzeko operazioen ondorioz hirugarrengoei eragindako kalte-garela guztiak indemnizatzea.

Klausulan aurreikusitako betebeharrek funtsezko kontratu-betebeharraren izaera izango dute SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta, beraz, betebehar hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, HAZIk nahi izanez gero.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA ISILPEAN GORDETZEKO BETEBEHARRA

Hautagaiei eta enpresa lizitatzaileei eman behar zaien informazioari eta esleipenari buruzko publizitatearen gainean SPKLn jasota dauden xedapenetan eta informazio publikora sartzeko indarrean dagoen legedian aurreikusitakoa kaltetu gabe, HAZIk ezingo du enpresa lizitatzaileek emandako eta eskaintza aurkezterako unean konfidentzial gisa izendatutako informazioa dibulgatu. Konfidentzialtasunak isilpeko tekniko edo komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei edo konpetentzia

faltsutzeko erabil daitezkeen informazioei eragiten die, izan lizitazio-prozedura honetan edo hurrengo beste batzuetan.

Pleguan edo dagokion kontratuan konfidentzial gisa ezarritako edo beren izaeragatik hala tratatu behar direlako, kontratu espezifikoak gauzatzeko jasotzen duten informazioa errespetatu beharko dute enpresa kontratistek.

Konfidentzialtasun hori 5 urtez mantenduko da.

24. DATUEN BABESA

Kontratazio honen xede-zerbitzuak eskaintzerakoan, HAZIk tratatuko ditu enpresa kontratistaren edukietako datu pertsonalak.

Testuinguru horretan, enpresa kontratistak betebeharra du DBEOn xedatutakoa betetzeko (zehazki, 28., 29. eta 30. artikuluetan xedatutakoa).

Horrela, DBEOn hala ezarrita dagoelako, enpresa kontratistak, tratamenduaren eragilea den aldetik, HAZIrekin dagokion kontratua izenpetu behar du, DBEOren 28. artikuluan zehaztutako eduki eta irismenarekin.

Kontratu hori HAZIk eta enpresa kontratistak zerbitzua eskaintzeko kontratua sinatzen duten aldi berean sinatu beharko dute.

Nolanahi ere, eta kontratu horretan horretarako ezarritakoa gorabehera, lizitazio honen xede den kontratazioa dela eta, enpresa kontratistak honako aurreikuspen hauek bete beharko ditu:

- DBEOn eta HAZIren eta enpresa kontratistaren arteko zerbitzuak eskaintzeko kontratuaren indarraldian zehar aplikagarriak diren datuen babeserako gainerako arauetan xedatutakoa beteko du.

- Datu pertsonalak HAZIren jarraibide dokumentatuei jarraituz bakarrik tratatuko ditu.

- DBEOn aurreikusitako informazioa emateko eta baimena lortzeko betebeharrak bete beharko ditu.

  Ondorio horietarako, eta azalpen gisa baino ez, enpresa kontratistak beharrezkoak diren bitartekoak erabiliko ditu (adibidez, formularioetako informazio-klausulak eta interesdunekiko harremanetan erabili beharreko beste dokumentu batzuk, eta abar). Nolanahi ere, honako hauek adieraziko ditu: (i) datuen tratamendua HAZIk

egiten duela; eta (ii) horren ondorioz, HAZI izango dela tratamendu horren arduradun bat eta bakarra. Enpresa kontratista tratamenduaren eragilea izango da soilik.

- Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonek konfidentzialtasun-betebehar egokia dutela bermatuko du.

- Arriskuari egokitutako segurtasun-maila bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoak aplikatuko ditu enpresa kontratistak, kontuan hartuta teknikaren egoera, aplikazio-kostuak, tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak, bai eta pertsona fisikoen eskubide eta askatasunentzako probabilitate- eta larritasun-arrisku aldakorrak ere. Besteak beste, honako neurri hauek izan beharko dira kontuan, azalpen hutserako:

  a) Datu pertsonalen seudonimizazioa eta zifratzea;

  b) Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, eskuragarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko neurriak;

  c) Datu pertsonalak azkar lehengoratzeko eta eskuratzeko neurriak, gorabehera fisikorik edo teknikorik izanez gero.

  d) Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri teknikoen eta antolamendu-neurrien eraginkortasuna egiaztatu, ebaluatu eta baloratzeko prozesu erregularrak.

- HAZIk hala eskatzen dionean, eta datuen babesaren arloan dituen betebeharrak betetzen dituela frogatzeko, (i) HAZIren izenean egindako tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroaren kopia bat aurkeztuko du; eta (ii) HAZIk komenigarritzat jotzen duen beste edozein dokumentu aurkeztuko du, baldin eta enpresa kontratistak HAZIren izenean egiten duen datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia badu.

- HAZIk edo hark baimendutako beste auditore batek auditoretzak egiteko aukera eta laguntza emango du, ikuskapenak barne.

- Segurtasun-neurriak abian jartzeko eta ikuskatzeko ardura zuzena duen edo duten pertsonaren edo pertsonen berri emango dio HAZIri.

- Langileei prestakuntza eta informazioa emango die datuen babesaren arloan aplikatzekoa den araudiaren ondoriozko betebeharrei buruz.

25. JABETZA ADIMENDUNA ETA/EDO INDUSTRIALA

Enpresa kontratistak baimendutako iturrietatik eta bere kontura lortu beharko ditu informatika-ekipoen gaineko (hardwarea eta softwarea) edozein erabilera- eta/edo ustiapen-lizentzia eta -eskubide, bai eta Plegu honetan ezarritakoaren arabera atxiki, ekarri eta/edo mantendu behar dituen beste edozein ekipo eta/edo bitarteko osagarriren gainekoak ere.

Halaber, erabat aplikatu da kontratazio honetan SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa. Hala izanik, kontratuaren xede-zerbitzuak exekutatzeko emaitzaren gaineko jabetza HAZIrena soilik izango da, emaitza osoa zein fase bakoitzarena. Hori guztia egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubideak kaltetu gabe, Jabetza Adimenduneko Legearen Testu Bategina onartzen duen 1996ko apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretuan eta/edo kontratistari egokitu dakiokeen Patenteei buruzko 2015eko uztailaren 24ko 24/2015 Legean ezarritakoaren arabera. HAZIk behar bezala erreparatu beharko die eskubide horiei.

Ondorioz, enpresa kontratistak HAZIri bermatu beharko dio kontratuaren xede-zerbitzuen emaitza modu baketsuan erabiltzen dela, eta, hala badagokio, kontratuaren parte den edozein elementuren gaineko lizentziak eta eskubideak legez eta baimendutako iturrietatik lortzen direla. Entregatzeko unean adierazi beharko du emaitza horren gainean ez dagoela HAZIri kontratazio horregatik dagozkion eskubideen aurka egiten duen konpromisorik edo kargarik.

Nolanahi ere, enpresa kontratista izango da hirugarrengoek planteatu dezaketen jabetza adimendunari eta/edo industrialari buruzko erreklamazioen arduraduna, honi dagokionez:

- Zerbitzuak eskaintzerakoan, Jabetza Industrialaren edo Adimendunaren arloko eskubideen bidez babestuta dauden materialak, tresnak eta gainerakoak erabiltzea.

- Kontratazio honen xede-zerbitzuen emaitza eta emaitza hori osatzen duen edozein elementu.

Aurrekoa dela eta, enpresa kontratistak HAZI indemnizatu beharko du kontzeptu horien erreklamazioetatik erator daitezkeen kalte-galerengatik.

26. KONTRATU ESPEZIFIKOEN ZIGORRAK

Zigorrak kontratatutako prestazioak gaizki exekutatzeagatik edo kontratuaren beste edozein baldintza ez betetzeagatik

Enpresa kontratistak, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratatutako prestazioak gaizki exekutatuko balitu edo kontratuaren beste edozein baldintza beteko

ez balu, HAZIk kontratu espezifiko hori suntsiaraz lezake, Plegu honetako 31. klausulan adierazitako terminoetan, edo kontratuaren exekuzioarekin jarrai lezake. Kasu horretan, sortzapena HAZIren aldekoa izango da eta dagozkion indemnizazioak ezarri ahal izango ditu kalte-galerengatik, hau da, kontratu espezifikoaren prezioaren % 10eko zigorra.

Zigorrak kontratistari osorik edo zati batean ordaindu beharreko zenbatekoak kenduz ordainduko dira, eta zenbateko horretatik gorako zenbatekoa erreklamatuko da.

Nolanahi ere, bai kontratua suntsiaraztea, bai kontratuarekin jarraitzea erabakitzen badu, HAZIk alde bakarrez erabaki ahal izango du nahi duen denboran zehar eta bitarteko propioekin edo hirugarrengoekin jarraitzea. Bi kasuetan, jarraipenaren kostuak enpresa kontratistarengan izango du eragina, eta ezingo dira kalte-galerak eta Klausulan aurreikusitako gainerako efektuen indemnizazioak kaltetu.

27. KONTRATU ESPEZIFIKOAK LAGATZEA

Ez dagokio, lagatzailearen baldintza teknikoak edo pertsonalak izan baitira kontratua esleitzeko arrazoi erabakigarria.

28. KONTRATU ESPEZIFIKOAK AZPIKONTRATATZEA

Enpresa kontratistek hirugarren batzuekin hitzartu ahal izango dute prestazioaren zati bat egitea, Klausula honek eta SPKLren 215. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Kontratu espezifikoak esleitu ostean, eta gehienez ere exekuzioa hastean, enpresa kontratistek idatziz jakinarazi beharko diote Kontratazio Organoari azpikontratuak egiteko asmoa, azpikontratatuko den prestazioaren zatia eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta legezko ordezkariak adierazita, eta behar bezala justifikatu beharko du azpikontratistak azpikontratazioa gauzatzeko duen gaitasuna, dituen elementu teknikoei eta giza baliabideei eta esperientziari dagokienez, eta SPKLren 71. artikuluaren arabera kontratatzeko debekurik ez duela ere egiaztatu beharko du.

Enpresa kontratista nagusiek idatziz jakinarazi beharko diote Kontratazio Organoari kontratu nagusia gauzatzean informazio hori aldatzen bada, baita azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazio guztia ere.

Azpikontratistak azpikontratazioaren xede den kontratu espezifikoaren zatia egiteko kaudimen egokia badu, horren berri ematea nahikoa izango da kontratuaren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta hori beharrezkoa bada larrialdi-egoera bati erantzuteko edo premiazko neurriak hartzea eskatzen badu eta behar bezala justifikatzen bada.

Enpresa azpikontratistak enpresa kontratista nagusiaren aurrean bakarrik egongo dira behartuta, eta, beraz, hark hartuko du bere gain kontratu espezifikoa gauzatzearen erantzukizun osoa HAZIren aurrean, Pleguari zorrotz jarraiki, SPKLren 201. artikuluan aipatzen diren ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzea barne.

HAZIk enpresa kontratista nagusiek egindako azpikontratuen berri izateak ez du aldatuko haien erantzukizun esklusiboa.

Azpikontratistei eta hornitzaileei ordaintzeko, eta ordainketa horiek egiaztatzeko, SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoa beteko da.

29. KONTRATU ESPEZIFIKOAK ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratu espezifikoak aldatu ahal izango ditu SPKLren 205. eta 222.1. artikuluan aurreikusitako kasuetan. Nolanahi ere, ezingo dira esparru-akordioan oinarritutako kontratu espezifikoetan aldaketa handiak egin, bertan ezarritakoari dagokionez.

30. ERANTZUKIZUNA

Kontratu espezifiko bakoitzeko enpresa esleipendunaren betebeharra izango da kontratuaren exekuziorako operazioen ondorioz hirugarrengoei eragindako kalte-galera guztiak indemnizatzea.

Enpresa esleipenduna egindako zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule izango da, bai eta kontratu espezifikoa gauzatzean gertatzen diren omisio, akats edo metodo desegokiek HAZIri edo hirugarrenei eragiten dizkieten ondorioen erantzule ere.

31. KONTRATU ESPEZIFIKOAK SUNTSIARAZTEA

HAZIk kontratu espezifikoak suntsiarazi ditzake, betiere SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte-galerak ordaintzen badizkio kontratistari. Artikulu hori berariaz da aplikagarria ondorio horietarako.

32. KONTRATU ESPEZIFIKOAK SUNTSIARAZTEA

Kontratu espezifikoak betetzean edo jarraian araututakoaren araberako akordioa adostutakoan suntsiaraziko da.

Hauek izango dira HAZIren borondatez kontratua suntsiarazteko arrazoiak:

a) Lehiaketaren deialdia egitea edo kaudimengabezia aitortzea beste edozein prozeduratan.

b) Enpresa kontratistak atzerapenak izatea epeak betetzeko garaian.

c) Kontratuaren helburu nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, betiere funtsezko gisa kalifikatuak izan badira.

e) Prestazioa ezin exekutatu ahal izatea hasieran adostutako terminoetan, kontratua ezin denean Plegu honetan aurreikusitakoaren arabera aldatu.

f) Kontratua exekutatu bitartean, enpresa kontratistak soldatak ez ordaintzea kontratuan parte hartzen ari diren langileei, edo langile horientzat aplikagarriak diren hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea kontratua exekutatu bitartean.

g) Oro har, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan aurreikusitako kontratuaren edozein betebehar ez betetzea.

h) SPKLren 313 artikuluaren 1. atalean ezarritako kontratua suntsiarazteko arrazoiak, berariaz aplikagarriak baldin badira. Hauek dira arrazoi horiek:

    1. Kontratazio organoari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, zerbitzuen prestazioa hasi aurretik atzera egitea edo zerbitzua hasteko aurreikusita zegoen epea lau hilabete baino gehiagoz etetea.

    2. Zerbitzuaren prestazioa atzera botatzea hasi ondoren edo kontratua Kontratazio Organoak adostutako zortzi hilabetetik gorako denboraz etetea.

Klausula honetan aurreikusitako suntsiarazteko edozein arrazoiren kasuan, suntsiarazpen hori automatikoa izango da, eta HAZIk kontratistari jakinarazte hutsa nahikoa izango da horretarako.

Jakinarazpena jasotzean, enpresa kontratistak betebeharra izango du berehala HAZIri entregatzeko eta ordura arte kontratatutako prestazioak gauzatzeko egindako

dokumentu guztiak eskuragarri jartzeko, baita kontratuaren ondorioz sortutako gainerako dokumentazio edo informazio guztia ere. Horrekin batera, HAZIk kontratistari emandako eta erabilitako dokumentu guztiak entregatu beharko ditu, eta HAZIren jabetzakoak izatera igaroko dira.

Hori guztia dagokion kontratuaren ondorengo likidazio ekonomikoa kaltetu gabe, jarraian xedatutakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiak direla eta kontratua suntsiarazteagatik sor daitezkeen erantzukizun ekonomikoak edo legez sor daitekeen beste edozein erantzukizun kontratua suntsiaraztean likidatuko dira, eta hori ez da oztopo izango HAZIrentzat kontratua exekutatzen jarraitzeko.

Nolanahi ere, suntsiaraztean, enpresa kontratistak hasiera batean eskubidea izango du egin eta onartu diren prestazio guztien prezio jasotzeko.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen arrazoiren bategatik suntsiarazten bada, kontratu espezifikoaren prezioaren %10a HAZIren alde sortuko da, dagokion kalte-galerengatik indemnizatzeaz gain. Indemnizazio horiek pilatu egiten dira. Bi kopuruak kontratistari ordaintzeke dagoen preziotik kenduko dira eta gainerakoa erreklamatu egingo da.

Hala ere, SPKLren 313. artikuluaren 3. atala aplikagarria izango da berariaz. Hau da:

a) Klausula honen h.1 hizkian aurreikusitako suntsiarazpen kasuetan, enpresa kontratistak kontratu espezifikoaren esleipenaren prezioaren % 3ko indemnizazioa jasotzeko eskubidea izango du kontzeptu guztiengatik (BEZik gabe).

b) Klausula honen h.2 hizkian aurreikusitako suntsiarazpen-kasuetan, enpresa kontratatzaileak eskubidea izango du etekin industrialaren kontzeptuarekin eskaintzeari utzi dion zerbitzuen prezioaren % 6 jasotzeko kontzeptu guztiengatik (BEZik gabe).

Azkenik, kontratua HAZIren eta enpresa kontratistaren arteko adostasunez suntsiarazi ahal izango da. Kasu horretan, aldeen eskubideak horietan hitzartutakora egokituko dira.

33. ERREGIMEN JURIDIKOA ETA KONTRATU ESPEZIFIKOEN JURISDIKZIOA

Esparru-akordioaren arabera esleitzen diren kontratu espezifikoei Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Plegua eta sinatzen den esparru-

akordio bera aplikatuko zaie prestakuntzari eta esleipenari dagokionean. Dokumentu horietan jasota ez dauden kasuetarako, SPKLn ezarritako arauak aplikatuko dira.

Efektuei eta suntsiarazpenari dagokionez, Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza teknikoen Pleguak eta esparru-akordioak arautuko ditu. Dokumentu horietan jasota ez dauden kasuetarako, zuzenbide pribatuaren arauak aplikatuko dira. Hala ere, SPKLren 319. artikuluan "Efektuak eta suntsiarazpena" atalean ezarritako arauak ere aplikagarriak izango dira esparru-akordioarentzat.

Horrez gain, SPKL eta Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra onartzen duen 2001eko urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikagarriak izango dira, betiere Plegu hau arau horiei berariaz lotuta ez badago.

Administrazioarekiko auzi-errekurtsoen jurisdikzioa izango da kontratuaren prestakuntzari, esleipenari eta aldaketei buruzko auziak ebatziko dituena, azken horien inpugnazioaren jatorria baldin bada SPKLren 204 eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzea eta aldaketa horren ondorioz esleipen berri bat egin behar izan bada.

Kontratu espezifikoari ezin bazaio kontratazioaren arloko errekurtso berezirik jarri SPKLren 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituren Sailaren aurrean egiteko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Komunari buruzko 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legean eta Administrazioarekiko Auzi-errekurtsoen Jurisdikzioa Arautzeko 1998ko uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoarekin bat datorren errekurtsoa jarri beharko da.

Kontratu espezifikoak errekurtso berezia jartzeko aukera ematen badu, SPKLren 44.1 artikuluak kontratazioaren arloan ezarritakoaren arabera, hala badagokio, errekurtso hori Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen Errekurtsoen Administrazio organoaren aurrean jarriko da, SPKLren 44. artikuluaren eta hurrengoen arabera.

Jurisdikzio zibilak izango du kontratu espezifikoaren efektuen eta suntsiarazpenaren ondorioz aldeen artean sor daitezkeen kontraesanak bideratzeko eskumena, Klausula honen lehenengo paragrafoan aipatutako kontratuaren aldaketen kasuan izan ezik.

I. ERANSKINA EGIN BEHARREKO ERREKIEN ETA ZERBITZU ENOGASTRONOMIKOEN ZERRENDA

Burruntzian egindako txahal-errekiak eta parrillan egindako beste (haragi) produktu batzuk	GEHIENEKO PREZIOA ZERBITZU BAKOITZEKO (BEZik gabe)
Behi-kanalen errekiak	1.300 €
Txerri-kanalen errekiak	1.150 €
Arkume-kanalen errekiak(1-10 arkume)	700 €
Arkume-kanalen errekiak (11 arkumetik aurrera)	60 € gehiago arkume bakoitzeko
≤ 700 pintxoko errekiak	700 €
701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekiak	850 €
1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekiak	1.050 €

Parrillan egindako hegaluze-, antxoa- eta berdel-errekiak	GEHIENEKO PREZIOA ZERBITZU BAKOITZEKO (BEZik gabe)
≤ 700 pintxoko errekiak	700 €
701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekiak	850 €
1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekiak	1.050 €
Produktua prestatzea	1 € /kg

ZERBITZUA HAZIREN UNITATE MUGIKORREAN	ZERBITZUA OSASUN BAIMENA DUTEN ENPRESA ESLEIPENDUNAREN AZPIEGIUREKIN
Zerbitzu enogastronomikoa, honakoa izan behar da kontuan: • **Gutxienez 4** pintxo desberdin • **Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura.** • Zerbitzua jasoko duten pertsonen gehieneko kopurua, gutxi gorabehera: **325 pertsona** **Barnean sartzen da:** ordainsariak, behin erabiltzeko sukaldeko tresneria edo beharrezkoa den beste edozein elementuren kostua.	Zerbitzu enogastronomikoa, honakoa izan behar da **kontuan:** • Gutxienez **4 pintxo** desberdin • **Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura.** • Zerbitzua jasoko duten **pertsonen gutxi gorabeherako kopurua**: 325 pertsona **Hauek sartuko dira: osasun-baimena duten azpiegituren alokairua**, ordainsariak, lekualdatzeak, behin erabiltzeko sukaldeko tresnen, kopen edo beharrezkoa den beste edozein elementuren kostua.
○ **Zerbitzuaren gehieneko prezioa: 3.900€ (BEZik gabe)-gehieneko**	○ **Zerbitzuaren gehieneko prezioa: 3.900€ (BEZik gabe)-gehieneko prezioa pertsonako: 12 € (BEZik gabe)**

prezioa pertsonako: 12 € (BEZik gabe)	o **Osasun-baimena duten azpiegiturak alokatzeko gehieneko prezioa: 800 € (BEZik gabe)**

II. ERANSKINA. ESKATUTAKO KAUDIMENA ETA/EDO ESKATZEN DIREN BALIABIDEAK ESLEITZEKO KONPROMISOA EGIAZTATZEKO, ENPRESA LIZITATZAILEA BESTE ERAKUNDE BATZUEN KAUDIMENEAN ETA/EDO BALIABIDEETAN OINARRITUKO DEN KASUETARAKO NOTARIO-AKTAREN EREDUA.

[…] jaun/andreak, […] NAN zenbakia duenak, […] IFK zenbakia duen […] enpresaren legezko ordezkari gisa adierazten du […] enpresa lizitatzaileak (enpresa lizitatzailearen izena) parte hartzen duen […]ren kontrataziorako lizitazioaren baldintzen irismen guztia ezagutzen duela, eta adierazten du bokazio ezeztaezina duela lizitatzaile hori esleipenduna izanez gero, esparru-akordioa exekutatzeko beharrezko guztiak bere esku uzteko. Horretarako, berariaz onartzen du Kode Zibileko 1257.2 artikuluan xedatutakoa, eta […]k baimendu beharko du berariaz aldaketak edo moldaketak egitea.

Enpresa lizitatzaile hori esleipenduna baldin bada, […]ren aurrean idatzi hau aurkeztean, konpromiso hori onartuko da.

Horrez gain, eskaintza aurkeztu den datan, ordezkatzen duen enpresa lizitatzaileak ez duela 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora aldatzen dituen 2017ko azaroaren 8ko Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legearen 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik.

[…](e)n, […](e)ko […]ren […](e)an

[Sinadura]

III. ERANSKINA ESPARRU AKORDIOA SINATZEKO ESKAERA EREDUA

…… jaun/andreak, …… helbidearekin eta …….. NAN zenbakiarekin, bere izenean edo …….. helbidea eta …… NAN edo IFK zenbakia duen enpresaren ordezkaritzan, bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun guztien jabe delarik,

ADIERAZTEN DU:

I. Ezagutzen duela erretzeko eta dastatzeetarako zerbitzuetarako akordio-esparrua arautu behar duten Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Plegua.

II. Ezagutzen duela Plegu horren edukia eta lizitazioan parte hartzeko beharrezkoa den dokumentazioa, eta osorik onartu eta betetzen duela, inolako salbuespenik gabe.

III. Esparru-akordioa egiteko prozedura irekian parte hartzeko eskaera egiten duela.

IV. Esparru-akordioan lote honetan edo hauetan parte hartzeko eskaera egiten duela (**adierazi gurutze batekin dagokion lotea edo loteak*):

- 1. lotea:
- 2. lotea:
- 3. lotea:

[…](e)n, […](e)ko […]ren […](e)an

[Sinadura]

IV. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, JAKINARAZPENAK ETA BESTELAKOAK JASOTZEKO LEHENTSITAKO BITARTEKOA EZARTZEA

..... jaun/andreak, ... helbidearekin, ...NAN zenbakiarekin, ...telefono-zenbakiarekin eta ..... helbide elektronikoarekin, bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun guztien jabe delarik, .egoitza ..... helbidean duen eta ..... IFK zenbakia duen ..... erakundearen ordezkaritzan, eskatutako zerbitzuentzako esparru-akordioa arautu behar duen Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Pleguaren berri baduelarik

ADIERAZTEN DU:

LEHENA.- (*eskatutako kaudimena egiaztatzeko beste erakunde batzuetan oinarritu behar bada gehitu beharrekoa*): Bere kaudimena egiaztatzeko […]ren kaudimenean eta bitartekoetan oinarritzeko asmoa duela, eta erakundeak konpromisoa duela esparru-akordioak irauten duen aldi guztian zehar aipatutako kaudimena eta bitartekoak bere esku jartzeko. Horrek bermatuko ditu kaudimena eta baliabideak beharrezkoa denean, Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Pleguan ezarrita dagoen moduan.

Esleipenduna izaten bada, kontratazio hori arautzen duen Administrazio Klausula Partikularren Pleguaren 10. Klausulan eta Baldintza Teknikoen Pleguan eskatzen diren gutxieneko giza baliabideak eta/edo baliabide materialak kontratuari atxikitzeko konpromisoa hartzen duela.

BIGARRENA.- (*Atzerriko enpresen kasuan gehitu beharrekoa*). Espainiako edozein epaitegi eta auzitegiren jurisdikzioaren menpe geratzen direla esparru-akordiotik zuzenean edo zeharka sor daitezkeen jazoera guztientzat, eta, hala badagokio, uko egiten diola lizitatzaileari toka dakiokeen atzerriko foru jurisdikzionalari.

HIRUGARRENA. - HAZI FUNDAZIOAk lizitazioa dela eta egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko, helbide elektroniko hau ezartzen duela lehentasun gisa:

- […]

LAUGARRENA. - Berariaz onartzen duela HAZI FUNDAZIOAK gardentasun instituzionala ematea lizitazio-, esleipen- eta exekuzio-prozesutik (esleipenduna izanez gero) eratorritako datu guztiei, prozesua amaitu arte.

[…](e)n, […](e)ko […]ren […](e)an

[Sinadura]

V. ERANSKINA. FORMULA BIDEZ EBALUATU DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO PROPOSAMENA.

[…] jaun/andreak, […] helbidearekin eta […]. NAN zenbakiarekin, bere izenean edo […], helbidea eta […] NAN edo IFK zenbakia duen enpresaren ordezkaritzan, bere gaitasun juridiko eta jarduteko gaitasun guztien jabe delarik, eta honen bidez […] kontratatzeko […] prozeduraren bidezko lizitazioaren berri izanik

ADIERAZTEN DU:

1. […] kontratua exekutatzeko konpromisoa hartzen duela, ekintza bakoitzeko unitate-prezio hauen arabera:

1. LOTEA: Burruntzian egindako txahal-errekiak eta parrillan egindako beste (haragi) produktu batzuk	Unitate-prezioa (BEZik gabe)	Unitate-prezioa (BEZarekin)
Behi-kanalen errekiak	… €/errekia	… €/errekia
Txerri-kanalen errekiak	… €/errekia	… €/errekia
Arkume-kanalen errekiak(1-10 arkume)	… €/errekia	… €/errekia
Arkume-kanalen errekiak (11 arkumetik aurrera)	… €/errekia	… €/errekia
≤ 700 pintxoko errekiak	… €/errekia	… €/errekia
701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekiak	… €/errekia	… €/errekia
1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekiak	… €/errekia	

2. LOTEA: Parrillan egindako hegaluze-, antxoa- eta berdel-errekiak	GEHIENEKO ZERBITZU (BEZik gabe)	PREZIOA BAKOITZEKO	GEHIENEKO PREZIOA ZERBITZU BAKOITZEKO (BEZarekin)
≤ 700 pintxoko errekiak	… €/errekia		… €/errekia
701 < pintxo ≤ 1.500 pintxoko errekiak	… €/errekia		… €/errekia
1.501 < pintxo ≤ 2.000 pintxoko errekiak	… €/errekia		… €/errekia
Produktua prestatzea	… €/errekia		… €/errekia

3. LOTEA: ZERBITZUA HAZIREN UNITATE MUGIKORREAN	ZERBITZUA OSASUN BAIMENA DUTEN ENPRESA ESLEIPENDUNAREN AZPIEGIUREKIN
Zerbitzu enogastronomikoa, honakoa izan behar da kontuan:	Zerbitzu enogastronomikoa, honakoa izan behar da **kontuan:**

• **Gutxienez 4** pintxo desberdin • **Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura.** • Zerbitzua jasoko duten pertsonen gehieneko kopurua, gutxi gorabehera: **325 pertsona** **Barnean sartzen da:** ordainsariak, behin erabiltzeko sukaldeko tresneria edo beharrezkoa den beste edozein elementuren kostua.		• Gutxienez **4 pintxo** desberdin • **Basque Wine edarien zerbitzua, zukuak edo ura.** • Zerbitzua jasoko duten **pertsonen gutxi gorabeherako kopurua**: 325 pertsona **Hauek sartuko dira: osasun-baimena duten azpiegituren alokairua**, ordainsariak, lekualdatzeak, behin erabiltzeko sukaldeko tresnen, kopen edo beharrezkoa den beste edozein elementuren kostua.	
GEHIENEKO PREZIOA ZERBITZU BAKOITZEKO ETA PERTSONA BAKOITZEKO (BEZ-IK GABE)	**GEHIENEKO PREZIOA ZERBITZU BAKOITZEKO ETA PERTSONA BAKOITZEKO (BEZ-AREKIN)**	**GEHIENEKO PREZIOA ZERBITZU BAKOITZEKO ETA PERTSONA BAKOITZEKO (BEZ-IK GABE)**	**GEHIENEKO PREZIOA ZERBITZU BAKOITZEKO ETA PERTSONA BAKOITZEKO (BEZ-AREKIN)**
○ **Zerbitzuaren gehieneko prezioa: …. €** ○ **Pertsona bakoitzeko gehieneko prezioa: … €**	○ **Zerbitzuaren gehieneko prezioa: …. €** ○ **Pertsona bakoitzeko gehieneko prezioa: … €**	○ **Zerbitzuaren gehieneko prezioa: …. €** ○ **Pertsona bakoitzeko gehieneko prezioa: … €** ○ **• Osasun-baimena duten azpiegiturak alokatzeko gehieneko prezioa: … €**	○ **Zerbitzuaren gehieneko prezioa: …. €** ○ **Pertsona bakoitzeko gehieneko prezioa: … €** ○ **• Osasun-baimena duten azpiegiturak alokatzeko gehieneko prezioa: … €**

[…](e)n, […](e)ko […]ren […](e)an [Sinadura]